

ANA MERINO

Ficha teknikoa:

Mikroipuinen tailerra

Hainbat kontakizun labur irakurriz eta iruzkinez, genero horren ezaugarriak sakonduko ditugu. Narrazio-lanbidearen teknika eta trikimailuak ikasiko ditugu, eta geure idazkietan aplikatuko ditugu. Astero, idazteko proposamen erakargarri batetik abiatuta, bat idazteari ekingo diogu, eta gero irakurri eta komentatuko dugu.

PROGRAMA

Eguna: astelehena (urriatik abendura)

Orduetgia: 11:30 -13:00

Hizkuntza: gaztelera

Urria: 7,14, 21, 28

Azaroa: 4, 11, 18, 25

Abendua: 2, 9, 16

Ana Merino Miguel

Donostian jaio eta Filologia Hispanikoan lizentziaduna, Merino AFAL, Arte eta Letren Aldeko Elkartearen sortzaileetako bat da, eta horren bidez, Idazketa eta irakurketa tailerrak proiektua gauzatzen du. 20 urteko ibilbidearekin, tailer hauen helburua genero narratiboaren mekanismoak praktikan jartzea eta modu kritikoan irakurtzen irakastea da.

Literatur solasaldien dinamizatzailea, Donostian Okendo Kultur Etxean eta Casares-Tomasene Kultur Etxean aurki dezakegu Ana, baita Usurbilgo Sutegi liburutegian ere.

Merino ere epaimahaikide izan da hainbat literatur lehiaketatan, zerbitzu profesionalak eskaintzen ditu editore gisa, eta gaur egun bere artikuluak unibertso digitalean irakur daitezke **www.serescritor.com** blogean, literatur kritikan eta liburu munduan espezializatua.

Ana Twitter-en ere aurkituko dugu, @merinoana23 erabiltzailearekin. Bertatik irakurketak proposatzen ditu eta bere jarduera programaren berri ematen du.